

#JesusGureanEreBidelagun

GAZTEAK

DELEGACIÓN DE ANUNCIO Y CATEQUESIS
FEDE ZABALKUNDE ETA KATEKESIRAKO ORDEZKARITZA



“Esperientzia, elkarte, misioa”

Eta zur, zertan sinesten duzu?

Beharbada, gaur, Mendekoste-eguneko ebanjelioko txatalak azaltzen duen esperientzia –beldurraren eraginez, etxean atea itxita zeuden-, ez zaigu hain arrotz egiten bizi dugun pandemia dela-eta. Geuk ere, Jesusen jarraitzaileen lehenengo elkarteak bezala, etxean egoteak dakarkigun segurtasuna atzean utzi eta kalera atera behar dugu. Kalera erantzukizunez atera! Eta kalera misio jakin batekin atera! Mendekoste-eguneko kontakizuna gaurkotasunez beterik dago guretzat. Fedeak beti dakarrelako nahasketa, zalantza apur bat, egoeraren erabateko kontrolik izan gabe aurrera-pausua ematek beldurra... Horixe gertatu zitzairen hasierako kristauei ere, geuri pasatzen zaiguna. Eta kristau izatea zentzuzkoa izango bada, Jesusekin bat egitearen esperientzia apal baina pertsonala bizi behar dugula konturatzen gara. Ez gara kristau, erabaki edo ideia baten ostean! Kristau gara, gertaera bat bizi izan dugulako, Nazaretoko Jesusekin bat egin dugulako. “Nire barruan ez badut Jainkoa aurkitzen, nekeza izango da kanpoan aurkitzea. Alderantziz, barruan sumatzen badut, bizitzan aurkituko dut.”[1] Gainera, beldurra gainditu eta Jainkoaren esperientzia bizi izateko urrats hori ez dut bakarrik emango! Bat eginik, elkartean emango dugu urrats hori, bakea, poztasuna, itxaropen eta elkartasuna kutsatuz. Eta, hain zuen ere, oraintxe dei egiten zaigu kalera atera gaitezen! Nahastera, Frantzisko Aita Santuak dioen bezala! Jesusek misiora bidaltzen gaitu. Zein da misio hori? Bere antzera bizi, berri on izanik sufritzen ari direnentzat. Espiritu Santuarengan sinestea, Jesus ondoan dugula eta mundu hobea egiten lagunduko digula sinestea da.

[1] Homilías Jose Antonio Pagola.

IKUSI

Hiru begirada: bilatu egotea gustuko duzun lekua, erlaxatu, lasaitu eta galdetu:

Zein da Jainkoaz duzun esperientzia pertsonala?



((...)) Ez naiz aspertzen Ebanjelioaren muinera garamatzaten Benedikto XVI.aren hitzak errepikatzeaz: «Ez da kristau izaten hasten erabaki etiko batek edota ideia nagusi batek hartara eraginik, bizitzari aukera berria eta, beraz, behin betiko norabidea ematen dion gertakariarekin, Pertsonarekin aurkitzean baizik» EG,7

Zein esperientzia dut elkarte/taldeaz? Zer egin dezaket nire talde/elkartea Aita Santuak azaltzen duena bezalakoa izan dadin?

((...)) *elkarte* irekiak, fedean bizitasuna dutenak, Jesukristoren berri emateko irrikatzen daudenak, alaiak, askeak, anaikoarrak eta konprometituak (..) CV,220



Zein misio dut bizitzan?



Gazteok, ez uko egin gartzaroaren onenari, ez geratu balkoian bizitzari begira. Ez zaitzte nahasi, zorientasuna ez baita sofara murrizten; ez ezazue bizitza osoa pantailaren atzean bizi. Bertan behera utzitako ibilgailuak erakusten duen ikuskizun triste ere ez bihurtu. Ez izan aparkatutako auto, aitzitik, ametsei hegan egiten utzi eta erabakiak hartu.

Arriskatu, nahiz eta huts egin. Ez bizirik iraun arima anesthesiatuak duzuela, ez begiratu munduari turista bazinete bezala. Nahastatu! Bota kanpora geldiarazten zaituzteten beldurrak, momifikatutako gazte bihur ez zaitzeten. Bizi! Bizitzaren onena lortzen saiatu! Ireki kaiolako atea eta hegan egi! Mesedez, ez erretiratu denbora baino lehen (CV,143)

EPAITU

Orain irakurri ebanjelioa,

Jesukristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 19-23

Asteko lehen egun hartan bertan, arratsean, ikasleak etxe batean bildurik zeuden; judu agintarien beldurrez, ateak itxirik zeuzkaten. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, agurtu zituen esanez:

- Bakea zuek.

Gero, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Pozez bete ziren ikasleak Jauna ikustean. Jesusek berriro esan zien:

- Bakea zuei. Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet.

Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien:

- Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die..



Argitzen du Jainkoaz duzun esperientzia?

Zure taldea den elkarte txikiaz duzun esperientzia?

Zein da Jesusek zeuretzat duen misioa?



OTOITZ EGITEKO

«Sinesten dut» esan


«Sinesten dut» esatea, arriskatzen dut, fidatzen naiz, aukeratzen dut, bilatzen dihardut, esatea da. Zalantza dut, eta itxaroten dut, eta amildegira jauzi egiten dut esatea ere bada. Inguruan ikusten dudanetik gauza asko Jainkoa badela onartzen dudanean zentzuzkoagoa dela esatea ere bada. Sinisten dut esatea, onartzen, jasotzen eta babesten dut esatea da. Eta ulertzen ez dudanaren aurrean, isiltzea. Unibertsoa, denbora, espazioa, bere mugatasunean onartzea da. Eta infinituan, Jainkoarengan pentsatzea. Jainkoa distantzia ez ezik hurkotasuna dela pentsatzea. Presentzia, maitasuna, hasiera eta amaiera dela. Baina sinisten dut esatea, Jainkoarengan eta gizakiarengan sinestea da. Sortzeko, aurrera egiteko, maitatzeko, bat egiteko, jenio izateko, ahul eta ahaltu izateko gaitasuna da. Gaitzari ontasun sakonarekin aurre egiteko gaitasuna, horretan ere sinisten dugu-eta. Sinisten dut esatea, ulertzen saiatzea da, bilaketan aurrerapen handirik egiten ez badugu ere. Eta arimarik gabeko baieztapenak, zehazpen higituak, fedea ideologia hutsal suntsitzailea bihurtzen duten begiradak nahikotzat jotzea. Sinisten dut esatea, maitatzen, amesten eta sufritzen dot esatea da; sinisten dudan horretan konprometitzen naiz esatea, bestela zein fede litzateke hori? Sinesten dut esatea, munduaren -ezta neure munduaren- erdigunea ez naizela esatea da.

José María Rodríguez Olaizola, sj



Kristau guztiei dei egiten diet, edozein toki eta egoeratan daudela ere, berri dezaten beraien Jesu Kristorekin aurkitzea edo, erabaki dezatela gutxienez Berari bila ditzan uztea, egunero atsedetik gabe horretan saiatzea. Dei hau beretzat ez denik pentsatzeko arrazoirik ez du inork, «Jaunak emandako maitasunetik kanpo ez da inolr geratzen»[1] eta. *Arriskatzen denari Jaunak ez dio hutsik egiten; eta norbaitek Jesusenganako pauso txiki bat ematen duenean jabetzen da Bera ordurako zain zegoela, besoak zabalik.* EG,3

[1] Paulo VI.a, Gaudete in Domino Aholku-hitz postolikoa (1975eko maiatzak 9), 22: AAS 67 (1975), 297.



EKIN

**AKonpromiso txiki bat idatzi eta taldean batera jarri.
Nola zainduko duzu Jainkoarekiko hartu-eman pertsonala?
Aurrerantzean, zein ekarpen egingo diozu taldeari?
Zein konpromiso solidario gauzatuko duzu?**

ZER PROPOSATZEN DIZUGU?

Collagea egin, Espiritu Santua, bere indarra, presentzia ikusezina, eragina... irudikatuz.

Beti bezala egin dezakezu, ebakinez, itsasgarriaz, guraizeez eta koloreez baliatuz.

Ordenagailuan edo tabletean egin dezakezu, <https://piccollage.com/> appa edo eskura duzun besteren bat erabiliz.

Batera jarri taldekideen aurrean, azaldu eta beste batzuei erakutsi nahi badiezue, #JesusGureanEreBidelagun hashtagaz baliatu.

ESCAPE ROOM

MENDEKOSTE FESTAREN ZENTZUA
ETA ESANAHIA EZAGUTU, ULERTU
ETA SAKONTZEKO

**Klikatu marrazkian jokoan
sartzeko**